

Ezpalak

JON TORNER

Asel Luzarraga errudun jo du Txileko justiziak



ASEL LUZARRAGA idazle, musikari eta blogari bizkaitarra errudun jo du Txileko justiziak. 2010eko urtarrilaren 1ean atxilotu zuten, herrialde hartan izandako atentatu saiakera batekin

zerikusia zuelakoan. Etxean lehergaiak egiteko materiala izatea egotzi diote Luzarragari. Lerro hauek idatzi genituenean, epaileek oraindik ez zuten jakinarazi idazle bizkaitarrari zein zigor ezarriko zioten.

- Asel Luzarragaren blogak: <http://goiena.net/blogak/asel> eta <http://gorribeltzean.wordpress.com>.

- ASEL ASKE kolektiboaren webgunea: <http://aselaskatu.org>.

Euskal Zinemaren Panoramak zortzi film bilduko ditu

DONOSTIAKO ZINEMALDIAN, Zinemira-Euskal Zinemaren Panorama atalaren baitan, Euskal Herriaren ekoitzi diren zortzi film proiektatuko dituzte. Horietako bost estreinaldiak dira: *Debekatuta dago oroitzera*; *Amerikannak*; *La plaza de la música (Musika plaza)*; *Sagarren denbora. 25 urte deserritik itzultzen* eta *Ttaup, Ttaup! Arraun kolpeka* (argazkian). Urteko ekoizpenak dira beste hiruak: *80 egunean*, *Mugaldekoak* eta *Simplemente*. Zinemira saileko ekitaldi nagusia irailaren 22an Victoria Eugenia antzokian egingo den Euskal Zinemaren Gala da. Alex Angulo aktoreak jasoko du Zinemira Saria aurtengo edizioan.



Amarika Proiektuak eta Arabako Foru Aldundiak bultzatuta, *Inmersiones* ekimenaren hirugarren edizioa egingo dute aurten. 5.000 euroko aurrekontua izango du, Euskal Herriko arte garaikidearen joera berriak erakusteko helburuarekin. Urriaren 1etik 15era, nahi duen orok arte sorkuntzak aurkeztu ahalko ditu, ondoren abenduan antolatuko diren jardunaldietan parte hartzeko. Jardunaldi horietan bestelako ekintzak ere egingo dituzte.

Los Lunnis, Gomaesputa eta Mortadelo eta Filemon dira Tolosako (Gipuzkoa) Topic txotxongilo zentroan ikusgai dagoen *Panpina bizidunak* erakusketako protagonistetako batzuk. Orotara Muñecos animados enpresaren 65 pieza bildu dituzte. Erakusketak irailaren 23a arte izango da zabalik.



Ladysmith Black Mambazo, Mahala Rai Banda, Xabi Aburrizaga eta Oysterband bezalako artistek parte hartuko dute Getxoko (Bizkaia) Nazioarteko Folk jaialdiaren 26. edizioan. Hilaren 9tik 12ra bitartean egingo da, *Jaiio zenetik, berdinak gara, ezberdinak gara* lelopean. Jaialdiaren helburua da musikaren bitartez giza eskubideen gorespena eginez herrien kulturartekotasuna lortzea.

● **Javier Barandiaran antzerkilariak artikulua plazaratu du Gara egunkarian (*)**: «Jai herrikoietan espazio publikoak bere esanahia berreskuratzen du, 'giza-interakzioaren agertokia' eta, Habermasen definizioan, 'komunikazio eta iritzi publiko kritikoaren adierazpenaren eremua'. Nolanahi ere, hau izenpe-tzen dugunok, urtero-urtero, euren espazioa aldarrikatzen duten herritarren eta egunez egun paternalistagoa eta kritikarekiko 'errefraktarioagoa' den boterearen arteko auziaren lekuko gara. Tamalez, jai herrikoien kontrako jarrera nagusitzen ari da leku askotan: Bilbo, Iruñea, Donostiako Egiako jaiak...».

(*) Javier Barandiaranekin batera, beste hainbat lagunek sinatu dute artikulua, bederatzi antzerki konpainiaren babesarekin.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php